



Esku-pilota Soraluzen: lehena eta oraina
La pelota a mano en Soraluze: pasado y presente

Pilota kontuak: 1900-1983

Esku-pilotak gaur egun gure herrian duen arrakasta kontuan izanik, aproposa iruditu zaigu esku-pilotak mendean zehar eman dituen soralezetar ospetsuen istorio txiki bat sartzea jai programan.

Idatzitako daturik ez dagoenez, hainbat herritarren gana jo dugu datu eske; baina pertsonen oroimena ahula izanik, erraza da guztiak ez izendatzea. Bihoakie hasiera-hasieratik gure barkamen eskaera.

Herriak zuen frontoi bakarra mende hasieran, 1830. urte aldera eraikitakoa, Elizondoko lautadan dagoena zen. Hasiera batean, tresnaz jokatzeko (palaz, zesta-puntan,...) eraikia izan zen frontoia, baina bere kantzax -oso txikia da, 20 x 15 metro ditu-pilota errebote-hormara eramatea baloratzen zen batipat pilotariengan.

Garai hartan, frontoiko arduradun bat zegoen, "Baraterua" izenez ezaguna, eta kantzax zaintzea, txandak antolatzea, pilotak alokatzea,... zen bere zeregina, pilotariei horrenbeste kobratuz lan horrengatik. Lanbide hau probetxugarria omen zen, zeren eta pilota-zaletasuna handia izanik, esku-pilotarako erabili ohi zen kantzax bete egiten bait zen egunero, laneguna amaitu eta gero. Udalak urtebeterako ematen zion errentan "Baratero" postua eskaintzarik hoberena egiten zuenari, horrela, "Mantxiku-Labe" ez-izenaz ezaguna zen Jose Maiztegi Urizar-i eman zion frontoia errentan mende hasieran. Frontoi inguruan bizi zen honek, 218 pezeta eskaini zizkion Udalari urteko errenta gisa; diru kopuru handia, kontuan izan ezkerero 1900. urtean ardo litroak 60 zentimo balio zuela, ogi librak 20 zentimo eta langile batek 2,50 pezeta irabazten zuela egunean; baina bestalde, garbi uzten digu pilota zaletasun ikaragarria zegoela garai hartan.

Errematean ezarri zitzaizkion baldintzak honakoak izan ziren labor-bilduz:

1.- *Errentariak, usadiozko mota eta era guztietako beharrezko pilotak izango ditu pilotazaleen esku.*

2.- *Esku-pilotan jokaturako partiduko, horrenbeste eskatuko die jokalariei: 16 tanto artekoetan 10 zentimo; 24 tanto artekoetan 15 zentimo; eta proportzio hauxe tanto gehiagokoetan ere (Nabaria denez, oraindik arautu gabe zeuden 22 tantoko partiduak).*

3.- *Norbere pilotekin jokutzen duenak ere, zenbateko berdinak ordainduko ditu.*

4.- *Monjen teilatura zein ortura botatuko pilotengatik, pezeta bat eskatuko die errentariak jokalariei lehendabiziko pilota denean eta 25 zentimo bigarren pilota denean.*

5.- *Harlauzaz estalitako frontoi edo kantzax gehi lau metroko zabalerako lur-saila ematen ziren errentan, pilotan jokatzeko erabil zitezkeelarik bakarrik.*

6.- *Gorde beharreko jai egunetan, goiz eta arratsaldetako elizkizun garaian, debekatuta zegoen pilotan aritzea eta errentariak pilotak utzi ezkerero ordurorietan, bost pezetako isuna jasotzen zuen.*

7.- *Aurrez eskatzen zenean frontoia erronka edo lehia partidu bat jokatzeko (horrelakoetan ez zegoen txandatzerik), 75 zentimo ordaindu behar izaten zuten 30 tanto arteko partidu batengatik bi pilotari zirenean, eta doblea bi pilotari baino gehiago izan ezkerero.*

Klausula honek aditzera ematen digunez, erronkak ohizkoak ziren eta arruntena, dirudienez, 30 tanto arteko partiduak.

Herriko pilotaririk ospetsuenak mende hasieran Nazario Arana eta Leokadio Legaristi izan ziren. Abuztuko jaietan erakusketa-partidu bat jokatzeko zuten urtero. Beranduxeago, baina mende honetako lehen hamarkadetan nolana ere, Eustakio Sesma, Modesto eta Ramon Bereikua, Eusebio Galarraga, Klaudio eta Esteban Onaindia eta Rikardo Juaristi nabaritu ziren besteak-beste, eta ez zen harriztekoa, herriko jaietan edota bestelako egun berezietan, izendatutako norbait garaiko pilotari onenen aurka jokatzeko ikustea, entzute handiko Romano Etxaburu "Txapasta"ren aurka adibidez.

1925. urtea aurrera zihoan Baltegieta kaleko Sesma frontoia eraiki zenean "Toki-Alai" izenez (saihesbidea eraikitzeke bota zen duela urte batzuk), eta inaugurazio egunerako Azkoitiko Atano III txapel-dun handia ekarri zen. Fetxa horretatik aurrera, ohizkoa bihurtu zen jaietan pilotari profesionalen partiduak eskaintzea eta, horrela, 1926ko San Roke egunean, Mallabia eta Bojas, Artamendi II eta Marinoren aurkako partidua antolatu zen.

Mendeko hirugarren hamarkadan beste frontoi bat eraiki zen, Batzokikoa, txapelketa handiak jokatzeko hemen ere. Garai honetan Ignazio Larrañaga, Benantzio Cataloy, Markos Legaristi eta, batez ere, Andres Larrañaga "Olaran" izan ziren herriko pilotaririk ezagunenak. Lanbidez ileapaintzailea zen "Olaran", inguruetako hoberena omen zen pilota astunaz, "liberdiko pelotakin", eta horrela erakutsi zuen Arrateko Kantabriaren aurka frontoi zaharrea jokaturiko norgehiagokan.

Izendatu ditugun askok eta askok pilotari gazteekin jokatzeko jarraitu zuten gerrate zibila amaitu ondoren, Periko Legaristi, Jesus Lete, Dei eta Edur Sesma, Iñaki Ezenarro eta Jose Aseginolazarekin, besteak-beste.

Garai honetatik aurrera eta egun berezietan, San Luis Gonzaga egunean adibidez, Arriaran anaiak, Atanoak (III, IV, VII eta X), Zurdo de Mondragón, Akarregi, Kortabitarte, Bolinaga, Arriola eta Gallastegi bezalako pilotari profesional onek jokatu zuten Sesma frontoian. Gallastegiren bitxikeria edo pasadizo hau kontatzen dute Soraluzean: Gasteizera omen zihoan kotxez, iluntzean partidu bat jokatu behar zuelako, eta gure herria igarotzean, arratsaldetako lehen orduetan, bertan gelditu eta herriko pilotazaleen aurka partidu bat jokatzeko erabaki zuen; partidua amaitu eta gero, kotxea hartu eta Gasteizerantz abiatu zen bere egitekoak burutzera.

Ez zuten profesionalak bakarrik jokatu gure herrian; garai bakoitzeko zaleturik hoberenek ere jokatu zuten, hala nola, Yaben eta Goikoetxea, Tapia anaiak, Aldazabal anaiak, Tolosa, etab.... Gehienak profesional mailan jokatzera iritsi ziren beranduago.

Berrogei eta berrogeita hamarreko hamarkaden tartean, pilotari hauek nagusitu ziren herrian: Bitoriano Goenaga, Juan Martin Izagirre, Jose Mari Leturiondo, Gregorio Portu, Umérez, Martin eta Xabier Iñurrieta, Elordi (Ubilla I.ren semea, gure herrian lan egiten zuen) eta, batipat, Zelestino Argarate eta Luis Mari Maiztegi, Eibar Barrutiko eta Deba Arroko txapel-dunak 1950. urtean, zeintzuk, denbora laburrez izan arren, profesional mailan ere aritu ziren.

Herriko pilotazaleen eta erretiratura nahiz ihardun zuten pilotari profesionalen arteko lehiak ikusmin handia esnatzen zuten berrogeita hamarreko hamarkadan. Aipagarriak dira, besteak-beste, 1951ko San Roke Txiki egunean, Dei Sesma eta Atano III.ak, Periko Legaristi eta Lazkanoren aurka jokaturako partidua eta Carral-ek, bakarrean, Leturiondo eta Izagirrearen aurka jokaturakoa.

Izendatutako Argaratek, Maiztegi, Portuk, etab... pil-pilean jarraitu zuten hirurogeiko hamarkadan, baina Jazinto Ruiz, Pedro Osa, Azpiazu eta Alberdi osintxuarrak, Pedro eta Damian Cacho, Marino Azkona, Soraluzean bizi zen Goñi nafarra, Abilio Martín, Jose Antonio Aiestaran, Jesus Hernando, Jorge Ormazabal, Ramon Gabilondo, Jabier Azkona, Pedro Mari Gallastegi, Juan Mari Iraola,... gazteak zetozkien toki eske. Hauetariko batzuk, beraien nagusitasuna erakutsi zuten herri txapelketetan Sesma pilotalekua behin-betiko itxi zen artean, 1983an. Gonzalo Portu, Juan Manuel Arruabarrena, Iñaki Iturbe, Jabier Goenaga,... ditugu eskualdean bere izena ezagutzera eman zuten herriko azken pilotari gazteak.

Ordutik aurrera, urte txarrak ezagutuko ditu pilota munduak Soraluzean, pilotariak eta pilotazaletasuna bera ere, ia galtzeraino iritsiz. Hala ere, Pilota Eskola sortu zen duela urte batzuk eta berari esker, pilotariak eta pilotazaletasuna berpizten eta indarberitzen joan dira, astiro-astiro baina geldialdirik gabe. Pilota Eskola hau hasia da bere fruituak ematen eta arrakastaz beteriko etorkizuna antzematen zaio.

Pilota gaur egun

Lehendabizi, eskerrak eman nahi dizkiogu Jai Batzordeari, Soraluzeko herriari geure lorpen eta kezken berri emateko aukera ezin hobea eskaintzen digulako.

Euskal Pilotan jokatzeko era ezberdinak baldin daude ere, Eskola honetan esku-pilota besterik ez da lantzen. Horretarako Polikiroldegiko frontoia erabiltzen dugu normalean, eta baita Ikastolako eta Batzokiko pilotalekuak ere noizbehinka.

Berrogeita hamar gazte inguru entrenatzen da erregularitasunez eta horien erdiak, gutxi gorabehera, zuriz janzten hasiak dira dagoeneko.

Soraluzetar guztientzat ateak irekita ditu Pilota Eskolak, baina hutsik ez egitea eskatzen zaie neska-mutikoei; doakoa da eta pilotan jokatzeko behar duten materiala ere Eskolak ematen die. Hau guztia, herriko enpresa batek eskaintzen digun dirulagun-tzari esker eta "txuleten" errifak erosi eta pilota partiduak ikustera joan ohi diren pilotazale guztien babes eta laguntzari esker.

Bi milioi pezetako aurrekontua dugu urtean, entrenamenduetarako eta jaialdietarako kantxa alokatzeak erdia inguru kentzen digun arren. Astean hamar orduz alokatzen dugu kantxa eta Polikiroldegiko arduradunek beste hiru orduz uzten digute dohainik txikientzat.

Erakustea, jolastea eta ondo pasatzea dira Pilota Eskolaren helburuak; Soraluzeko gazteak alaiak eta sanoak izan daitezela azken finean. Hori dela eta, txikienekin lan egin nahi dugu bereziki, baina horretarako ezinbestekoa da gurasoen laguntza. Funtsezkoa da neska-mutikoak pilotan jokatzera animatzea eta, ondorioz, seme-alabekin frontoira joatea nagusiagoen partiduak ikustera eta seme-alabek jokatzen dutenean beraien ondoan egotea.

La pelota en la actualidad

Agradecemos a la Comisión de Fiestas esta oportunidad que nos brindan para poder dar a conocer al pueblo de Soraluze nuestros logros e inquietudes.

Entre las modalidades de Pelota Vasca, la de mano es la que se practica exclusivamente en la Escuela. Nuestra actividad principal la llevamos a cabo en el frontón del Polideportivo, pero también hacemos uso de los de la Ikastola y Batzoki. El número de los que asisten regularmente a los entrenamientos rondará los cincuenta jóvenes, de los cuales la mitad aproximadamente ya se visten de blanco.

La Escuela de Pelota está abierta a todos los chavales que residen en Soraluze, siempre que asistan con cierta asiduidad, es gratuita y se les facilita todo el material que requiere la modalidad que se practica, gracias a la colaboración que nos presta una empresa de la localidad y el apoyo de los aficionados que asisten a presenciar los partidos y colaboran con la rifa de "las chuletas".

El presupuesto anual ronda los dos millones de pesetas, de los cuales, la mitad aproximadamente, corresponden al costo de alquiler de la cancha para entrenamientos y festivales. Por otra parte, tenemos diez horas semanales contratadas para los entrenamientos y otras tres horas gratuitas para los más jóvenes, que nos ceden los que regentan el Polideportivo.

La Escuela de Pelota en su cometido de enseñar, entretener, divertir y, en definitiva, hacer que Soraluze tenga una juventud alegre y sana, quiere dedicar, en la medida de lo posible, la atención a los más pequeños, lo que será posible tanto en cuanto colaboren los padres de los chavales en la buena marcha de la Escuela. Es primordial para ello que animen a los hijos a que practiquen el juego de la pelota y, en consecuencia, acudan al frontón con sus hijos para ver los partidos de otros ya iniciados y estén cerca cuando son los suyos los que juegan.

Azken hiru urtetako kirol-emaitzak Resultados de los últimos tres años

| | TXAPELKETA TORNEO | MAILA CATEGORÍA | PARTAIDETZA PARTICIPACIÓN | EMAITZAK RESULTADOS |
|----------------|--|---|------------------------------------|--|
| AÑO 1995 URTEA | Kluben Artekoa <i>Inter Clubs</i> | Kadeteak-Cadetes Gazteak-Juveniles Nagusiak-Seniors | | Txapeldunordeak-Subcampeones Txapelduna-Campeón Txapeldunak-Campeones |
| | Deba Arroa-Cuenca del Deba Berriz | Gazteak-Juveniles | | Txapeldunak-Campeones Txapeldunordea-Subcampeón Finalerdira 7-7 Semifinalistas |
| | Herrien artekoa-Inter Pueblos | Haurrak-Infantiles Gazteak-Juveniles Nagusiak-Seniors | | 4. postua - 4º puesto |
| | Herrikoa-Local (Banakakoa-Individual) | Eskola maila-Escolar | 102 neska/mutiko-102 chicas/chicos | |
| | Herrikoa-Local (Binakakoa-Parejas) | Eskola maila-Escolar | 23 bikote-23 parejas | |
| | Zaldibia | Alebinak-Alevines | | Txapeldunordeak-Subcampeones |
| AÑO 1996 URTEA | Berriz | Benjamin aurrekoak-Pre-benjamins | | Txapeldunordeak-Subcampeones |
| | Deba Arroa <i>Cuenca del Deba</i> | Kadeteak-Cadetes Gazteak-Juveniles | | Txapeldunordeak-Subcampeones Txapeldunordeak-Subcampeones |
| | Baqué Torneoa-Torneo Baqué | Kadeteak-Cadetes | | Txapelduna-Campeón |
| | Azpeitia | Benjaminak-Benjamin | | Txapeldunak-Campeones |
| | Herrikoa-Local (Banakakoa-Individual) | Eskola maila-Escolar | 76 neska/mutiko-76 chicas/chicos | |
| | Eibarko Gabonetako Torneoa <i>Torneo de Navidad Elbar</i> | Alebinak-Alevines | | Txapeldunak-Campeones |
| AÑO 1997 URTEA | Espainiako Txapelketa <i>Campeonato de España</i> (Binakakoa-Parejas) | Gazteak-Juveniles | | Txapeldunak-Campeones (Bat Soraluzetarra) (Uno de ellos de Soraluze) |
| | Deba Arroa <i>Cuenca del Deba</i> | Kadeteak-Cadetes Gazteak-Juveniles Nagusiak-Seniors | | Finalerdira-Semifinalistas Txapeldunak-Campeones Finalerdira-Semifinalistas |
| | Herrikoa-Local (Banakakoa-Individual) | Eskola maila-Escolar | 93 neska/mutiko-93 chicas/chicos | |
| | Torneo GRAVN Torneoa (Banakakoa-Individual) (Gipuzkoa, Rioja, Araba, Vizcaya, Nafarroa) | Gazteak-Juveniles | | Txapelduna-Campeón |